

ADMINISTRAZIOAN EUSKARA JAKITEAK «ABANTAILAK» EZIN DITUELA EKARRI NABARMENDU DU PRESIDENTEAK

Euskararen Legea murriztaileagoa egitearen alde mintzatu da Miguel Sanz

■ Sanzek kritikatu egin du, Eusko Alkartasunak legea Europar Batasuneko Batzordean aztertua izateko hartu duen ekimena

■ Administrazioan euskara baloratua ez izateko, legea aldatu beharra dagoela berretsi du presidenteak


■ Halaber, unibertsitate arloan «egoera argitzea ezinbestekoa» dela uste du Sanzek, bereizteko irakaskuntza ez unibertsitariotik

Alberto Barandiaran / Iruñea

NAFARROAKO Presidente Miguel Sanz Euskararen Legea aldatzearen alde azaldu zen atzo, baina ezer egitekotan, gehiago murrizteko. Hala erantzun zuen Sanzek atzoko gobernu bilkuraren ondotik eman zuen prentsaurrekoan, galdetu zitzaionean zer iritzi zuen Eusko Alkartasunak lege hau salatzeko Europar bideratu duen ekimenaz. «Euskararen Legeak aldaketarik behar badu, hori da, EAK planteatzen duenaren kontrako norabidean». EAK larunbatean jakinarazi zuen Europako parlamentari Gorka Knörren bitartez Europako Batzordera eramango zuela Nafarroa linguistikoki hiru zatitan banatzen duen lege hau, 1986koa dena, bertan azter dadin «nafarren hizkuntza eskubideen urratzea». Halaber, Knörrek proposamena egingo dio batzordeari Nafarroan euskarak bizi duen egoeraren gaineko segimendua egiteko.

Sanzen ustetan, «manipulazio asko»

Sanzek gogoratu zuen planteamendu hau ez dela berria bere alderdian eta adierazi zuen «manipulazio asko» dagoela gai honen inguruan, eta lotu zuen erreibindikazioa sindikalgintzan, unibertsitatean eta irakaskuntzan orokorrean dagoen «gatazka» sozialarekin. «Gure gizartean —esan zuen presidenteak— irakaskuntza publikoak eskaintzen dituen ereduaren aldeko hautaketa libre egin behar da, ez presioen eta publizitate nahasgarriaren baldintzapean». Sanzek esan zuen irakurri dituela txosten «nakarmen engainagarriak, non esaten den modelo zehatz batek haurraren adimena pizten duela, aukera gehiago eskaintzen dituela, eta horrelakoak». Halaber, Unibertsitatean euskararen egoera arautuko lukeen legea



JESUS DIGES / EFE

Miguel Sanz, duela bi aste egin agerraldi batean.

egitearen alde mintzatu zen Nafarroako presidentea.

Administrazioan ere bada zer moldatu Sanzen ustetan. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan UPNko

hautagaiak hitz egin zuen Administrazioan euskararekin gertatzen ziren «diskriminazioez», eta atzo ideia hori berretsi zuen, esateko puntu horretan ere legea aldatu be-

harra zegoela. «Euskara ezin da izan foru administrazioan sartzeko abantail tresna euskara ezagutzen ez duteneko, ezin da izan diskriminazioa hizkuntza hori ezagu-

PSNko kideak ere aldaketak egitearen alde

■ ORAIN arte UPN azaldu baldin bada behin eta berriro Euskararen Legeak euskararen garapenerako uzten dituen zirrikitua ixtearen alde, badira dagoeneko hotsak sozialisten artean ere aukera hori aipatzen ari direnak. Joaquin Pascal Nafarroako hezkuntza zuzendari eta Iruñeko Udaleko zinegotzi ohia mintzatu da egunotan *Diario De Navarra* egunkarian, azpimarratzeko Oinarriak eta beste tal-

deak eskatzen ari diren aldaketak ez liratekeela egin behar; hau da, aldaketak bai, baina murrizteko.

Pascalek nabarmendu du bi idazkitan euskararen normalizazioa euskal aberri batekin lotuta dagoela eta normalizazioa nafar guztiak euskaldunak izatea dela; hori, zinegotzi ohia ohia, Nafarroako biztanleen %85ekiko «diskriminazioa» da.

Ez da Pascalen iritzia bakarrik, eta

PSNk eta UPNk aurretik sinatu duten aurrekontuetarako hitzarmenak —gobernu hitzarmena, finen, hainbat lege proposamenen eztabaidan ikusi denez— gai honi buruz deus arautzen ez badu ere, datozen hilabeteetan ekimenak izango dira gisa honetakoak. Sanzek berak atzo bertan apuntatu zituen legea aldatzeko eremuak. Alde batetik Administrazioan euskararen presentzia. Legeak dio na-

farrek badutela eskubidea administrazioarekin harremanak euskaraz izateko, baina aspektu hori arautzeko 1994an onartu zen foru dekretua ez zen inoiz indarrean jarri.

Unibertsitateari dagokionez, Euskararen Legeak ez du zuzeneko aipamenik egiten, baina dio hiritar guztiek eskubidea dutela irakaskuntza arlo ezberdinetan euskaraz ikasteko. Hori erabili ohi da NUPen bere garapena eskatzeko.

tzen ez duten nafarrentzat, hau da, gehiengo zabalarentzat. Sanzek azpimarratu zuen horrela «medikuntza ikasi duen inork ezin duela abantail handiagoak eduki bakar-bakarrik euskaraz jakiteagatik». Presidenteak esan zuen ere ez zuela inolako beldurrik Europar Batzordeak esango duenaz, «euskararen garapenean indarrean dauden legeen eta hortik sortzen diren dekretuen arabera arautzen ari delako». «Gainera —gehitu zuen— euskararen erabilera irizpide hedakorrez arautzen ari da».

Sanzek adierazpenok egin zituen Nafarroako euskalgintzako hainbat taldek, hain zuzen ere, legearen aldaketa aldarrikatzeko Iruñean egin behar duten jaiaren bezperan. Oinarriak-ek ofizialtasunaren oinarriaren gainean lege proposamen berria plazaratu du Nafarroa osoan eta milaka sinadura bildu ditu atxikimendua lortzeko.

esanak

x Miguel Sanz:

«Gizarteak libreki erabaki behar du irakaskuntza eredu, ez presioen eta publizitate engainagarriaren menpean»

«Nik irakurri ditut txosten engainagarriak, non esaten baita eredu zehatz batek adimena pizten duela eta aukera gehiago eskaintzen»

«Euskararen erabilera modu hedakor eta irekien bidez arautzen ari da»

«Euskara ez da izango abantail tresna euskara dakitenentzako Administrazioan sartzeko»